



## ALKATETZA DEKRETUA

Ingurumen Teknikari lanpostuaren titularra aldi baterako ordezkatzeko beharra dago eta Aretxabaletako Udalak ez du Ingurumen Teknikari lanpostuaren lan-poltsarik. Euskal Administrazioako beste lan-poltsetara dei egin da eta ez dago lan-poltsarik indarrean.

### ERABAKI DA:

Alkatearen 2026ko martxoaren 11n I 26/00291 Dekretuaren bidez onartutako alkateari dagozkion eskuduntzak eskuordetzan ematearekin bat etorritik, erabaki dut:

### I 26/00396 zenbakidun Alkatetza Dekretua.-

**Lehena.-** Ingurumen Teknikari lanpostuaren titularra aldi baterako ordezkatzeko Lanbidera jotzea.

**Bigarrena.-** Lanpostuaren hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri arautzaileak (I. eranskina) onartzea eta deialdia egitea.

<b>Sinatzailea</b>	FUNTZIOTAN DAGOEN ALKATEA Angel Etxabe Otadui
	<b><i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i></b> <a href="https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC">https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC</a>



I. ERANSKINA.  
INGURUMEN TEKNIKARIAREN LANPOSTUA BITARTEKO FUNTZIONARIOZ  
HORNITZEKO HAUTAKETA PROZESUAREN OINARRI ARAUTZAILEAK

**Lehena.- Xedea**


Oinarri hauen xedea da Ingurumen Teknikaria ordezkatzeko hautaketa-prozesua arautzea.

**Bigarrena.- Lanpostuaren ezaugarriak**

- Izena: Ingurumen Teknikaria
- Taldea: A2.
- Eskala: Administrazio berezia.
- Azpieskala: Zerbitzu bereziak.
- Lanpostu mailako osagarria: 21.
- Osagarria espezifikoa: 21.375,66 €.
- Lanaldia: %100.
- Iraupena: Baja.

**Hirugarrena.- Lanpostuaren eginkizunak**

- Titulazioak gaitzen dituen eginkizunak betetzea.
- Erakundearentzako dirulaguntzak bilatu, izapidetu eta justifikatzea.
- Datu-baseak eta erregistroak eguneratzea eta tratatzea.
- Jendeari arreta eta informazioa ematea, bere eskumenen esparruan.
- Administrazio-prozesu guztiak legezko epe eta aginduetara egokitzen direla kontrolatzea.
- Prozedurak sinplifikatzeko eta dokumentuak normalizatzeko lanak bultzatzea.
- Prozedurak berriro diseinatzen eta izapidetzen laguntzea.
- Txostenak eta ebazpen-proposamenak, estatistikak, memoriak eta hierarkian gorago dagoenak eskatutako beste dokumentu batzuk egitea.
- Lizitazio publikoetan preskripzio teknikoaren pleguak idazten laguntzea, bere eskumen-eremuaren barruan.
- Bere eskumen-eremuari dagozkion udal-ordenantzak eta -araudiak idazten parte hartzea.
- Bere nagusiei aholkularitza teknikoa ematea, bere eskumenen esparruan.
- Arloko gainerako teknikariei laguntza eskaintzea eta indartzea, hala eskatzen zaienean.
- Ingurumena eta udalerriko udal-baliabideen iraunkortasuna hobetzeko udal-jarduketan jarraipena egitea.
- Baliabide naturalen (lurzorua, lurpea, ura, airea, fauna eta flora) eta hiri-ingurumenaren egoera aztertzea eta jarraipena egitea.
- Ingurumen-kontrolako instalazioen emaitzen balorazioa egitea.
- Neurketak, egiaztapenak, landa-probak etab. egitea.
- Beste sail eta/edo erakunde batzuekin elkarlanean aritzea ekologiarekin, birziklapenarekin, iraunkortasunarekin eta abarrekin lotutako kanpaina, jarduera edo jarduketetan.
- Bere eskumen-eremuari buruzko espedienteak, txosten teknikoak, balorazioak, proiektuak, azterlanak, jardueren memoriak eta estatistikak egitea eta idaztea.

<b>Sinatzailea</b>	FUNTZIOTAN DAGOEN ALKATEA Angel Etxabe Otadui
	<b><i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i></b> <a href="https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC">https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC</a>



- Tokiko Agenda 30 edo beste programa batzuk ezartzearen ondoriozko zereginak gauzatzea eta garatzea.
- Preskripzio teknikoaren pleguak idazten eta diru-laguntzak bilatzen eta lortzen parte hartzea.
- Mugikortasun jasangarri plana osatu eta egikaritu.
- Plangintza urbanistikoa, urbanizazio proiektuak, obra eta zerbitzuen proiektuak informatzea ingurumenari dagokion alderdi guztiei dagokionez eta ingurumen irizpideak ematea.
- Bere eskumen-eremuari dagozkion udal-ordenantzak eta -araudiak idazten parte hartzea.
- Nagusiei aholkularitza teknikoa ematea, beren eskumenen esparruan.
- Bere eremuari dagozkion prozedurei, araudiari, lizentziei eta zerbitzuei buruzko kontsultak artatzea eta orientatzea.
- Lurralde-arloko gainerako teknikariei laguntza eskaintzea eta haiek indartzea, hala eskatzen zaienean.
- Hierarkian gorago dagoenak esleitzen dion antzeko beste edozein zeregin egitea.

#### **Laugarrena.- Izen ematea**

Izen ematea Lanbideren bitartez egingo da.

Lanbidek Aretxabaletako Udalari hautagaien CV bidaliko dizkio eta, horien artean, baldintzak betetzen dituztenei, 3 egun naturaleko epea emango zaie, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eta merezimenduei dagokien dokumentazioa aurkezteko:

- NAN.
- Parte hartzeko baldintza den titulazioa.
- Euskara ziurtagiria (C1 maila).
- Merituen ziurtagiria (lan-esperientzia eta ikastaroak).

#### **Bosgarrena.- Betekizunak**

- Ingeniari teknikoa; unibertsitate diplomaduna; arkitekto teknikoa; lanbide hezkuntzako 3. mailako titulua edo baliokidea.
- Hizkuntza eskakizuna: C1/C1.
- Administrazio Publikoan lan egiteko legezko betekizunak.


#### **Seigarrena.- Epaimahaia kalifikatzailea**

Epaimahaia karrerako funtzionarioek osatuko dute oso-osorik, eta inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioen arabera izendatuko da.

Kide guztiek deitutako plazan sartzeko eskatzen den titulazioaren berdina edo goragokoa izan beharko dute, eta, edonola ere, hautaketa-organoetan parte hartzeko indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

#### **Zazpigarrena.- Merezimendu fasea.**

Lehiaketa fasean, gehienez, 10 puntu lortu ahal izango dira.

<b>Sinatzailea</b>	FUNTZIOTAN DAGOEN ALKATEA Angel Etxabe Otadui
	<b><i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i></b> <a href="https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC">https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC</a>



Merezimenduak aurkezteko azken egunera arte lortutako merezimenduak balioetsiko dira baremo honen arabera:

**a. Esperientzia profesionala, 6 puntu gehienez.**

Administrazio Publikoan, Ingurumen Teknikari lanpostuetan egindako zerbitzuak, deitutako lanpostuaren kategoria bereko lanpostuetan edo antzeko eginkizunetan: 0,10 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.

Merezimenduak aurkezteko azken egunera arte lortutako merezimenduak balioetsiko dira. Lan esperientzia egiaztatzeko dagokion administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, eta bertan adierazi beharko dira izendapenaren iraupena, lanaldia eta betetako eginkizunak.

Aretxabaletako Udalean emandako zerbitzuak, betiere eskabidean adierazi badira, ez dira agiri bidez egiaztatu beharko eta hautagaien espediente pertsonalean ageri diren datuen arabera balioetsiko dira.

**b. Prestakuntza osagarria, 4 puntu gehienez.**

Deialdiaren xede den lanpostuan bete beharreko eginkizunekin zerikusia duten gaietan erakunde ofizialetan egindako prestakuntza- edo trebatze- ikastaro homologatuengatik gehienez 4 puntu emango dira


- 10-24 orduko ikastaroak: 0,10 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 25-49 orduko ikastaroak: 0,25 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 50-99 orduko ikastaroak: 0,50 puntu ikastaro bakoitzeko.
- 100 ordu edo gehiagoko ikastaroak: puntu 1 ikastaroko.

Prestakuntza egiaztatzeko, lortutako titulua edo ikastaroa antolatu duen erakunde ofizialak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiriek nahitaez adierazi beharko ditu ikastaroa antolatu duen erakundearen izena, ikastaroaren izena eta ikastaroaren iraupen-orduak. Epaimahaik ez ditu kontuan hartuko oinarri hauetan eskatutako informazioa bete tzen ez duten ziurtagiriak.

**Zortzigarrena.- Azken emaitza**

Lehiaketa-faseetan lortutako puntu guztien batura egin ostean eta azken emaitza lortuta, epaimahai kalifikatzaileak puntuazio altuena lortu duten hautagaien aldeko izendapen-proposamena egingo du, eta udalaren iragarki-taulan eta udalaren webgunean argitaratuko du.

Emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, interesdunek 3 egun naturaleko epea izango dute bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.


<b>Sinatzailea</b>	FUNTZIOTAN DAGOEN ALKATEA Angel Etxabe Otadui
	<b><i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i></b> <a href="https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC">https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC</a>



Erreklamazio epea amaituta, eta aurkeztutakoak ebatzi ondoren, Alkatezak gainditu dutenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.

Berdinketa gertatuz gero, emakumeei emango zaie lehentasuna eta, hala ere, berdinketarekin jarraituz gero, honako irizpide hauen arabera erabakiko da, ezarritako hurrenkeran:

- a) Lan esperientziaren atalean puntuazio altuena lortu duenari.
- b) Zozketa.

<b>Sinatzailea</b>	FUNTZIOTAN DAGOEN ALKATEA Angel Etxabe Otadui
	<b><i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i></b> <a href="https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC">https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortaIV/r/0/13/AAAQD8NT.rvDC</a>